



2002/12/04ko prentsa-oharra


**INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)****2002ko urria**

## **EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %3,4 HAZI ZEN 2002KO URRIAN**

**Urriak iaz baino lanegun bat gehiago izatean, Indize Orokorra ez da aldatu (%0,0), lan-egutegiaren balio homogeneotan.**

2002ko urrian, %3,4 igo zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean, EUSTATEk eskainitako datuen arabera. Igoera hori, ordea, lanegunen balio homogeneotan neurtuta, Produkzioaren Indize Orokorra bere horretan (%0,0) mantentzea da, joan den urriak 2001ekoak baino lanegun bat gehiago izan baitu. Horiek horrela, urteko lehenengo hamar hilabeteetako tasa metatua %0,8 murriztu da, aurreko urteko aldi beraren aldean, balio absolututan.

### **Euskal AE-ko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2002**



(\*)2002ko urriko urte arteko hazkunde zuzendua

**Iturria: EUSTAT.**

2002ko urrian, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *energia elektrikoa*, *gasa eta ura* (%12,7), *ez-metalezko industria* (%10,0), *garraio-materiala* (%9,3), eta *material elektrikoa* (%8,8), eta besteak beste.

Urte arteko tasarik negatiboenak, besteak beste, honako hauek izan dituzte: *petrolio*a fintzea (%-25,3), *ehungintza* eta *jantzigintza* (%-19,8), *elikagai-industria* (%-1,5), eta *kautxua* eta *plastikoa* (%-1,1) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo hamar hilabeteetako balantzean, balio absolututan, %1,0 igo da kontsumo-ondasunen indizea, %0,3 bitarteko ondasunena eta %2,1 jaitsi, aldiz, ekipo-ondasunena.

Industri Produkzioaren Indize Orokorra urrian izandako aldakuntzak, 2001eko urriaren aldean, positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban (%5,9), Bizkaian (%3,9) eta Gipuzkoan (%1,7).

Urteko lehenengo hamar hilabeteetako balantzean, lanegunen zuzenketarik gabe, aldakuntzak nahiko desberdinak izan dira hiru herrialdeetan: Gipuzkoan %1,4 jaitsi da, Bizkaian %0,8 eta Araban %0,4ko igoera txikia izan da.

**Taula: 2002ko URRIA. Industri Produkzioaren Indize Orokorren hazkunde-tasa (%). Euskal AE**

| Kontzeptua                                     | Aurreko urteko hil beraren aldean |             | 2001eko urtarril-urriko tasa metatua |             | 2002ko urtarril-urriko tasa metatua |             |
|------------------------------------------------|-----------------------------------|-------------|--------------------------------------|-------------|-------------------------------------|-------------|
|                                                | originala                         | zuzendua(*) | originala                            | zuzendua(*) | originala                           | zuzendua(*) |
| <b>Indize orokorra:</b>                        |                                   |             |                                      |             |                                     |             |
| <b>Euskal AE</b>                               | 3,4                               | 0,0         | 0,7                                  | 0,4         | -0,8                                | -1,0        |
| Araba                                          | 5,9                               | 2,1         | 0,1                                  | -0,2        | 0,4                                 | 0,2         |
| Bizkaia                                        | 3,9                               | 0,6         | 0,4                                  | 0,0         | -0,8                                | -0,9        |
| Gipuzkoa                                       | 1,7                               | -1,8        | 1,4                                  | 1,1         | -1,4                                | -1,6        |
|                                                |                                   |             |                                      |             |                                     |             |
| <b>Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE</b> |                                   |             |                                      |             |                                     |             |
| Bitarteko ondasunak                            | 6,8                               | 3,7         | 1,5                                  | 1,2         | 0,3                                 | 0,1         |
| Kontsumo-ondasunak                             | 1,5                               | -2,3        | -0,6                                 | -1,0        | 1,0                                 | 1,0         |
| Ekipo-ondasuna                                 | 3,2                               | -1,1        | 0,1                                  | -0,3        | -2,1                                | -2,5        |

(\*) Lanegunez zuzendua.

**Iturria: EUSTAT**

Argibide gehiagorako:

|                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  <b>Eustat</b> | Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística<br>Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz<br>Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: <a href="mailto:eustat@eustat.es">eustat@eustat.es</a><br><b>Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso</b><br>Tel.: 945 017 514. Faxa: 945 017 501<br><b>Prentsa-oharrak Interneten: <a href="http://www.eustat.es">www.eustat.es</a></b> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|